



Atzo, kafe gazi-gozoa Zerkausian

TOLOSA • Batzuk, Zerkausi barruan herriaren etorkizunaz eztabaitzen zuten bitartean, beste batzuek «eskubide hau ukatu izana» salatzzen zuten kanpoan. Izan ere, atzo iluntzean, Tolosa 2015 ekimenaren baitan, Udalak deituta World Kafe izeneko ekitaldia gauzatu zen. Bertan, Tolosaren inguruko gaiez mintzatu ziren 27 mahaitan banatuta, ehun lagunetik gora. Une berean, ezker abertzaleak deituta, «ekitaldian parte hartzen utzi ez izana» salatu zuten hainbat herritarrek, ekimena «itxurakeriatzat» joaz eta eztabaidatutako gaiek ez Euskal Herriaren egoeran sakontzen ez zutela gaitzetsiz. E.E.

Ibarrako eta Tolosako emanaldiekin emango diote hasiera Titirijai-08ri

Kultura » Gaur abiatuko da 26. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia; erakusketak ere gaur inauguratuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Gaurtik hasita, txotxongiloen magia, ilusioa eta edertasunaz abalduko da Tolosako kaleetan. Arratsaldean igoko da 26. aldiz, Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren oihala. Aurtengoan ere haur nahiz helduak harritzen dibertitzen eta entretentzen saiatuko dira mundu osoko txotxongilo taldeak.

Urtez urte ikuslegoaren arreta erakartzea zaila da, baina helburu hori lortzeko asmoz, egitaraua berritzen saiatzen dira Tolosako Ekinbide Etxekoak. Halaber, aurtun, lehendabiziko aldiz erakusketak berezi bat ikusgai izango da Leidorreko sarreran. Bilduma honek jaialdian estreinatuko den Lorezaina antzezlanaren eszenografia sortzeko jarraitu den prozesua azaltzen du. Erakusketaren azalpena emanaldia hasteko prest da-



Obraztsob-en onena izeneko antzezlanaren ikusgai izango da gaur iluntzeko zortzietan. HITZA

goen arte ailegatzeko da, oihala igo eta fokuak piztu eta gero. Erakusketak, gaur 12:30ean inauguratuko da.

Bestalde, aurtun, Errusiako txotxongiloek irekiko diete leihoa. Honenbestez, Aranburu Jauregian ikusgai izango da hurrengo egunean honen inguruko erakusketak. Dena den, hau, gaur 18:30ean inauguratuko da.

Errusia, txotxongiloaren artean tradizio luzeko herrialdea da, bere maisu handi eta ospetsuen bidez eskola sortu duen herrialdea. Errusiari eskainitako lehiak honetara bere ardatza Sergei Obraztsov, Voronezh Nazioko antzerkia eta Yekaterimburgoko Antzerki Nazionaletik datozen funtsekin erakusketak zabal eta adierazgarri batean izango du.

Erakusketarako bere funtsa zuten dituen hiru konpainia handiak hauei elkartuko zaie programan, San Petesburgoko Brodaychaya Antzerki Nazionala eta Tomskeko 2+K antzerkia.

Gaurko emanaldiak

Bi saio ezberdin ikusteko aukera izango da gaur, jaialdiko lehen egunean. Hasteko, Andaluziako

Angeles de Trapo konpainiak *El espíritu del Cid* (Cid-en espiritua) obra aurkeztuko du.

Erdi-Aroko denda baten forma duen sormenezko antzoki birakor bat eta maisuko maniatutako hamar txotxongilo baino gehiagok *Cantar de Mio Cid*etik gidatzen ditu ikusleak.

Eguneko bigarren emanaldia 20:00etan hasiko da. Errusiako, Obraztsov antzerki taldeak *Lo mejor de Obraztsov* (Obraztsov-en onena) izeneko lana aurkeztuko du. Antzezlan hau egilearen ikusizunetako eszena ezagunekin osatuta dago: *Kontzertu berezia*, *Aladinoren lanpara magikoa*, *On Juan*. Txotxongilolari paregabe honen lanik onena umorez eta fantasiarekin antzezten du, haurrei zuzenduta, nahiz helduei.

Ibarran ere txotxongiloak

Titirijai 08ren baitan, emanaldi batzuk Tolosatik kanpo ere ikusi ahal izango dira, eta horietako bat Argentinako El Chonchon taldearen *Romeo eta Julieta* da. Ibarrako Kultur Etxean ikusgai izango da obra hau, 11:30etik aurrera.

Ikuslegoa aretora iritsi eta laguntzaile mekanikoak lagunduta arrantzako sare barnean esertzen den bitartean, itsasmutilak bertan eraikitzen du dekoratua. Kapitaina bere kabinara iristen denean hasten da benetan ikuskizuna.

» ASTEBURUKO EGITARAUA

Azaroak 29, larunbata

■ **Leidor.** Errusiako Obraztsov txotxongiloen antzerki taldearen eskutik *Lo mejor de Obraztsov* (Obraztsov-en onena) ikusi ahal izango da, 20:00etan.

■ **Kultur Etxea.** Andaluziatik dator Angeles de Trapo, *El espíritu del Cid* (Cid-en izpiritua) obra taularatzeko. Emanaldia 17:30ean izango da.

Azaroak 30, igandea

■ **Leidor.** Microcosmos, Herrialde Katalanetako taldea Tolosan izan-

go da *Baobab* aurkezten. Saioa 17:30ean izango da.

■ **Kasinoa.** Errusiatik dator Ekaterinburgoko txotxongilo taldea, *¿Quién va a despertar el sol?* (Nork esnaraziko du eguzkia?) lana aurkeztera etorriko da. 17:30ean izango da emanaldia.

■ **Zerkausia.** Sri Lancako Tradicional Puppet Art Museumek *Traditional Puppet dances* (Txotxongiloen dantza tradizionalak) taularatzeko du. Ekitaldia 17:30ean hasiko da.

■ **Kultur Etxea.** Argentinatik dator Asomados y escondidos taldea, *Huevito de ida y vuelta* (Joan eta etorriko arrautzatxoak) lana aurkezteko asmoarekin. Emanaldia 12:30ean hasiko da.

■ **Udal Musika Eskola.** Errusiatik dator, San Petesburgoko txotxongilo taldea. Hauek *El patito feo* (Ahatetxo itsusia) izeneko antzezlanaren aurkeztuko dute. Bi saio ezberdin izango dira, lehendabizikoa 17:30ean hasiko da, eta bigarrena, 19:30ean.

**OKINDEGI/KAFETEGIEN SEKTOREAN
LIDERRA DEN ENPRESAK
NEGOZIO BERRITZAILA ETA
KONTRASTATUAREKIN
LEITZAKO HEDAPENERAKO
BEREZKO NEGOZIOA KUDEATU NAHI
DUTEN PERTSONEKIN
HARREMANETAN JARRI NAHI DU
ERRENTAGARRITASUNA ZIURTATURIK
Harremanetarako telefonoa:
607219256 / 607 575018**

INIGO TERRADILLOS

Gerra Zibilak eta Lehen Frankismoaren garaiak Tolosan izan zuen eragina eta ondorioak biltzen dituen lana da *1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*. Joxemi Saizar eta Mikel Errazkin izan dira liburu honen egileak, eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak eta *Galtzaundi* aldizkariak argitaratu du. Etzi, abenduaren 1ean, Zerkausiaren izango da lan honen aurkezpena, 20:00etan. Aurkezpenaren ostean luntxa ere hartu ahaliko dute bertaratzen direnek.

Bi arlo desberdin ditu liburuak. Batetik Joxemi Saizarrek egin dituen elkarrizketak daude. Gerraren ikuspegi guztiak jorratu nahi izan ditu, eta horregatik arlo guztietakoa lekukotzak bildu ditu. Gainera, egin gabe zegoen lana izaki, testigantza horiek biltzeko unea zela dio, «bestela gabe gelditzeko arriskua baitzegoen». Bestetik Mikel Errazkin egingo du ikerketa lana dago. Aranzadi elkarteak kideak dokumentazio lana egin du batean eta bestean eskualdekoarekin zerikusia duten datuak bilatuz; hala, lekukotzekin lagunduta osatu du bere lana.

Liburuaren aurkezpenarekin batera, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte HITZAK eta *Galtzaundi*. Atzo *Garraxi bala* antzezlanaren izen ikusgai Gerra Zibila eta honen ondorioen inguruan, eta asteartean, hau da, abenduaren 2an, *Gerra Zibila Tolosaldean* hitzaldia eman go dute Aranzadi Zientzia Elkarteak Mikel Errazkin eta Juan txo Agirrek. Tolosako udaletxean izango da, 20:00etan.

» LIBURUA



- **Izenburua.** *1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*.
- **Egileak.** Mikel Errazkin eta Joxemi Saizar.
- **Argitaratzaileak.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eta *Galtzaundi*.
- **Diseinua.** Zigor Agirrezabala (Goitik).
- **Saltokiak.** Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzaren egoitzetan (Tolosan eta Leitzan), *Galtzaundi*ren egoitzan eta eskualdeko liburutegietan.
- **Prezioa.** 18 euro. *Galtzaundi* edo HITZA-ren harpidedunek 14 euro.

1936ko gerrakoak gogoan

«Eskualde gutxitan izango dute hain liburu osoa, lekukotzekin eta dokumentazioarekin»

JOXEMI SAIZAR › Liburuaren egilea

INIGO TERRADILLOS

Orain 2 urte hasi zen Joxemi Saizar (Tolosa, 1961) Gerra Zibilaren 70. urteurrena zela-eta elkarrizketak egiten TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN. Elkarrizketa horiek liburutzeko ideia gauzatu ikusi du, eta «oso pozik» dago emaitzarekin. «Ondorengo belaundientzat oso egokia izango da».

Nola hasi zen Gerra Zibilari buruzko lan hau egiteko ideia?

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN elkarrizketa batzuk egin nituen, eta buruan nuen horiek liburuan argitaratzea. Posible zela ikusi nuen, eta *Galtzaundi* aldizkarian Aranzadiaren eskutik Gerra Zibilari buruzko erreportaiak argitaratu zituztela kontuan hartuta, biak osagarri zirela irudituta, elkarlanean egitea erabaki genuen.

Zenbat elkarrizketa daude?

Nik HITZAN argitaratutako 13 daude, eta baita Olatz Hernandez eta Jaione Astibiaekin ere. *Galtzaundi* aldizkarian egin nituenak

ere sartu ditut, eta horiez gain, gehiago egin ditut, 26 daude dena. Abertzaleak, bando nazionalak, komunistak, gerrako umeak... daude, Gerraren ikuspegi guztiak jasotzen saiatu naiz.

Zergatik hasi zinen lan hau egiten?

Gai historikoak betidanik gustatu izan zaizkit. Gerra Zibilaren kasuan, lekukotzak jaso egin behar ziren ahalik eta azkarren, galdu egingo zirelako bestela.

Liburuarekin gustura?

Oso gustura. Eskualde gutxitan izango dute horrelako lan oso bat, dokumentazio eta lekukotzekin.

Guztiek onartu al zuten elkarrizketa egitea?

Ezezkoren bat jaso nuen, oroimen txarrak gogorarazten zituelako.

Pasadizorik?

Duela 2 urte EAE-ANVren garai hartako norbait topatu nahi nuen elkarrizketa egiteko, baina ez nuen inolr aurkitu. Hurrengo urtean ANVren zerrendak atera zituzten.



NOELIA LATABURU

«Oroimen kolektiboaren berreraiketan lagundu nahi dugu liburu honekin»

MIKEL ERRAZKIN › Aranzadiko kidea eta liburuaren egilea

Gizartea » Dokumentazio eta lekukotza lanarekin hartu du parte liburuan, Aranzadi Zientzia Elkarteak kidea.

I. TERRADILLOS

Aranzadi Zientzia Elkarteak kidea Mikel Errazkin (Anoeta, 1976). Bestelakoa izan da bere lana *1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean* liburuan. Datuak biltzea, historia eta dokumentazio lana egin du, Aranzadi elkartearekin eginen ari zen lana baliatuz.

Nolatan hartu duzu parte liburu honetan?

2006. urtean Tolosako Udalak eta Aranzadik ikerketa proiektu bat abiarazi zuten elkarlanean. Tolosan Gerra Zibilaren bilakaera historikoa nolako izan zen eta bertako aktore sozialetan, hau da, fusilatuetan, exiliatuetan, gerrara derrigorrez mugituta koengan... izan zuen eragina aztertzeke helburuz. Gerra Zibila eta Lehen Frankismoa hartu dugu kontuan, 1936-45 epea.

Ikerketa bukatu duzue, beraz?

Ikerketa bukatu gabe dago oraindik, baina dokumentazio lana bukatu dugu. Gure asmoa 2010ean ikerketa osoaren lana argitaratzea zen, DVD eta guzti. Baina orain interesgarria iruditu zaigu ikerketaren lehen ondorioak plazaratzea, jendearen eskaera ere bazegoelako.

Hala, 'Galtzaundi' aldizkarian argitaratutako erreportaiak erabili dituzue liburuan.

Galtzaundi aldizkarian erreportai sorta batekin hasi ginen. Gero, etzi aurkeztuko dugun *1936ko Gerrako Oroitzapenak* liburutzeko lan osatua egin du.

Nola osatu duzu liburuaren zure zatia?

Nire zatian, hiru jakintza arlo desberdindu daitezke: Batetik, historiarena dago, bilakera historikoa, hain zuzen ere. Bestetik, oroimena dago; garaileek nola garatzen duten oroimen politikaz azaltzen da, eta bestalde, garaituekiko garatzen den ahanztura politika ere kontatzen da. Hirugarren puntua oroitzapenena da; lekukotzak eta eztabaida taldea sartzen dira hemen, hauekin garai hartan ko-



I. TERRADILLOS

katu eta egoerak eta bizipenak gogoratu eta birsortu ditugu, eta hauengandik jaso ditugunak ere sartu ditugu.

Zein da liburu honen helburua. Zertarako izango da baliagarria?

Oroimen historikoaren berreskurapena deitzen diote, baina nik nahiago dut *Oroimen kolektiboaren*

berreraikitzea deitu. Egokiago hartzen du ideien funtsa. Herri-tar asko eta askori biktimia izatera ez zaio aitortu ere egin, beraz, horrek hasi beharko litzateke. Liburu honekin oroimen kolektiboa berreraikitzen lagundu nahi dugu nolabait, beraz, horretan baliagarria izango dela uste dugu.

Idoia Sanchezek Albizturren astero antzerki tailerra ematen du; lehen aldiz antolatatu du Albizturko Udalak eta Guraso Elkarteak tailer hau eta 11 haur eta gaztetxo joaten dira.

Fantasiarekin jolasten

NEREA URBIZU

Irudimenarekin eta askatasunarekin jolasteko ordua izatera iris daiteke antzerkiko ordua. Bestela, galdetu antzerkiko tailerretara joaten direnei besterik ez da behar. 11 haur eta gaztetxo joaten dira asteazkeneko ordu eta erdiz antzerkia ikastera Albizturren, Idoia Sanchez tolosarrarekin. Ekainera bitarte ikasiko dute.

Ez da lehen egunean ailegatu eta antzeztzen hastea: «Lehenik beroketa egiten dugu. Atentzioa, aditasuna, erreflexuak esnatzeko eta indartzeko jolasak egiten ditugu. Bizitzan ere hori behar dugu, erne egoteko behar da, bizitzaren arlo askotan, aldaketak somatzeko eta haietara egokitzeko». Inprobisazio txikiak egiten dituzte gero, behatzetako txotxongiloekin aritzen dira, edo horren orde, antzerki bat pentsatzen dute, edo ipuin bat denon artean interpretatzen da.

Herri txikia izatearekin, adin desberdineko haur asko dago. Hori antzerkiko orduan ere ikusi da: txikiak 3 urte izango ditu, eta zaharrenek 11. Idoia Sanchezek klaseak askotan eman ditu baina ez zaio inoiz halako talderik egokitu. «Niretzako buru hauste handia da: txikiak ezin dute helduen maila batzuetara iritsi. Ni orain ari naiz beraiekin ikasten, halako taldeekin nola jokatu ikusten. Adin guztiak ezagutzen ditut eta lan egiten dut, baina nahastuta ez».

Idoia Sanchez orain esperimentatzen ari da adin hauekin. Zer den komeni dena, zer den egokia, zer ez. «Gainera, oraindik ez dugu elkar ondo ezagutzen berriak garelako. Ez beraiekni, ezta nik beraiek ere. Aste gutxi daramatzagu, baina oso talde jatorra da. Hasiera koka-

penerako da beti, eta gainera gehitu behar zaio adin desberdintasuna. Niretzako lan berri bat da».

«Helburua, ondo pasatzea»

Idoia Sanchezek argi dauka zer den lortu nahi duena: ondo pasatzea. «Askatzeko, irekitzeko eta komunikatzeko tresna batzuk hartzen badituzte, are eta hobea. Helburu nagusia antzerki ordua eurek gozatzeko espazioa izatea da; ez dago kurtso bukaeran emaldi bat egin beharrik: suertatzen bada bai, baina hasiera batean berez, ez».

«Eta zergatik ez? Esperimentatzeko, eta 1.000 pertsonaia izateko aukera izatea eta jolasteko. Bizitzan oso mugatuta gaude: alde bati jartzen dizkiguten mugak, eta bestetik guk geure buruari jartzen dizkiogunak». Antzerkian, muga horiek gainditzeko saiakera bat izan daiteke, «nahiz eta hauek fikziozkoak izan». Beraz, askatasun hori ere sentitzeko aukera dago.

Antzerkiaren funtzioa

Umeen fantasia aurrera eraman dezakete antzerkiaren bitartez. Nahi duen papera egin dezake eta hori bizitu ere bai: otsobat, sorgina, printzesa bat... Aukera dezake: «Agian bizitzan zerbaite edo norbaite izaten ausartzen ez denak, bat-batean askatzen du erreprimittuta daukan alde hori antzerkian». Eta ez da agian beti erreprimittuta, askotan «lotsa handia da».

Baina gauzak ez dira esatea bezain errazak. Ikasleek oztopo batzuk ere baiduzte klasea joateko orduan: lotsa. Kasu batzuetan haur batzuk amarekin gelditu izan dira klasean, eta gutxinaka askatzen joaten dira, autonomia hori



Albizturko antzerki ikasleak, hasierako beroketako ariketak eta jokuak egiten. N. URBIZU

hartzen doaz. Idoia Sanchezen arabera, zailena lotsa kentzea eta arauak errespetatzea da: «Askok uste dute antzerki garaia dela klasean sartzea eta trapu bat jarri ondoren, nahi dutena egitea». Baina ez da hori, diziplina bat ere bada goelako, noski. «Hori onartu behar dute ere. Gustuko ez dituzten gauza batzuk ere egin behar dira. Hori ulertzea zaila egiten zaie. Askatasuna dago, baina nolabait ere, bide-ratuta».

«Helduagoei eskatu ahal zaie gehiago, baina txikiak ez, denbora aurrera doan heinean, behar dena hartzen doaz: autonomia, konfi-

Idoia Sanchezek umeen erritmoa errespetatzeari garrantzi handia ematen dio

dantza, espazioaren ezagutza... «Ekintza batzuk ez dituzte egiten txikiak, eta orduan ikuslearen papera egiten dute, baina behar hori dutelako, horrela hartu nahi dute parte ekintza zehatz horretan eta hori errespetatu egin behar da».


Horretaz gain, Idoia Sanchezek umeen erritmoa errespetatzeari garrantzi handia ematen dio. «Bardira ume batzuk antzerkian etorri beharrean amekin geratu beharko lirakeela, amen beharra dutelako oraindik, besterik gabe, eta espazio hori oraindik behintzat ez dutelako behar».

Joateko gogoia, ezinbestekoa

Ez da, ordea, ikasleei zaila egiten zaionik soilik. Irakasleentzat ere zailtasun batzuk badaude. Antzerkiko irakasle honentzat zailena, talde oso negatiboa eta ezkorra egokitzen zaidanean da, hau da; batzuetan talde batzuk ez dakit zergatik datozen antzerkian. Hori oso gogorra egiten zait, nik asko maite baitut nire lana. Giro pozoindu horrekin... asko sufritzen dut». Bestela, berez, «jendeak lan egin nahi badu, ez dago zailtasunik».

Antzerkiarekin lotura, beti

Ipuin-kontalaria dela jakina da Sanchez. Albizturren antzerki tailerra emateaz gain, Villabonan eta Alkizan ere aritzen da irakasten. Maite Agirrerekin, Pasaiko antzerki tailerretan Miguel Galindorekin, Clown-eko hainbat ikastaro egiten ditu, Schastopol-eko titiriteroak, Lamixene bat, Asvinenean Hankagorri... taldeetan ere aritu da. Esperientziarik ez duela ezin esan; 30 urte daramatza mundu honetan, eta egingo dituenak...



Ainhize behatzetako txotxongiloekin jolasteko prest. N. URBIZU



Idoia Sanchez eta haurrak txotxongiloekin egingo duten istorioa asmatzen ari dira. N. URBIZU

Gaur Amezketan Probintzialeko final bat

ERREDAKZIOA

Amezketako Zazpi-Iturri pilota eskola sendo dabil. Horren erakusle, gaur etxean jokatu duen Probintzialeko final bat kadete mailan eta jubenilen arteko binakako finalaurreko bat (17:00etan). Erik Jaka ariko da kadeteetan, Tartaloetxeko baten kontra. Jubeniletan, berriz, Olaetxea-Mantrola bikotea ariko da Añorgakoekin kontra.

Bidegoianen gaur ere 16:00etan

Probintzialeko lau partida izango dira eta Zazpi-Iturri, Intxurre eta Aurrera-Saiatz ariko dira, besteak beste. Infantilen mailako bigarren urtekoen txanda da bertan.

Bihar Tolosako Beotibar pilotalekuan goizean, Aurrera-Saiatz senior mailan ariko da hiru norgehiagokatan. 10:00etan hasiko dira, eta lehenik Añorga (binaka), ondoren Zazpi-Iturri (binaka) eta bukatzeko Ozkarbikoak izango dira aurkariak, hauek banaka.

Abendurako bi irteera aurreikusi ditu Oargi mendi elkarteak

Kirola » Aralarko bira egingo dute lehenik hilaren 6tik 8ra; Formigalera eski irteera ere antolatu dute 20tik 21era.

ERREDAKZIOA

Tolosako Oargi mendi elkarteak hainbat irteera antolatu ditu urteko azken hilabeterako, abendurako, artean diren jai egunak baliatuz.

Hala, abenduaren 6an, 7an eta 8an, Aralarko bira egingo dute. Minas inguruan dagoen borda batean gaua egingo dute eta Aralar mendikateko mendi esanguratsuenak igoko dituzte.

Hurrengo hitzordua abenduaren 20an eta 21ean dute. Hain zuzen ere, eski irteera antolatu dute Formigalera eski estaziora. Bertan Alpino eta iraupen eskia egiteko aukera izango dute. Izena ematean 40 euroko fiantza eskatuko dute antolatzaileek. Azken eguna abenduaren 12a izango da, ostiralarekin. Sabiñanigoko aterpetxean erdi pentsio eran pasako dute larunbat gaua. Gutxi gora beherako kostua 110 eurokoa da, non autobusa, aterpea eta forfaitak ordainduak dauden.

Argazki Lehiaketaren irabazlea, Aitzol Izquierdo

Mendi Hamabostaldiaren baitan egin zuten Argazki Lehiaketan, irabazlea Aitzol Izquierdo izan zen eta Karlis-en eskutik argazki kamera irabazi du honi esker. Bigarren, Joseba Abaigar izan zen eta hirugarren, berriz, Egoitz Bengoetxea.

Argazki originalari ere saria eman diote eta alor honetan, Arantxa Garin izan da irabazlea. Guztiek ere sari interesgarriak eskuratu dituzte.

Laburrak

Gaur, 'Tolosa Kantari' Tontokaletik abiatuta

GIZARTEA » Hileko azken larunbatero bezala, *Tolosa Kantari*ren beste saioa prestatu dute gaurkorako. Alde Zaharreko kaleetan barrena egingo dute, 12:00etatik aurrera, Maria Luisa Agirre doktoarearen plazaxotik (Tontokaletik) abiatuta. Abestuko diren kanten letrak banatuko dituzte antolatzaileek. Dena den, joan den hilean partitu zituzten orriak ekartzeko eskatzen diete dauzkateni eta guztioi parte hartzeko deialdia luzatu diete.

Orfeoien kontzerturako sarrerak salgai

KULTURA » Tolosako Orfeoia Egu-berrietako kontzertua eskainiko du abenduaren 23an, 20:30ean, Tolosako Leidor antzokian. Sarrerak eskura daitezke, 10 euroren truke, Tolosako Leidor antzokiko leihatilan eta interneten, kuxaren webgunean edo generaltickets.com helbidean.

Gaur, Zaindarien Asteko eukaristia gurasoentzat

HEZKUNTZA » Zaindarien omenez aste berezia burutzen ari dira Hirukide ikastetxean. Ekitaldi ugari egin dituzte astean zehar eta gaur gurasoei zuzendutako eukaristia egingo dute 19:00etan, Hirukide-Jesuitinetan.

Laskorain ikastolako Merkatu Txikirako materialaren bilketa, abian

Elkartasuna » Hainbat bide baliatu dituzte horretarako; datorren astean Tolosako dendetara joango dira.



laz ere material ugari jarri zuten salgai. E. EZEIZA

ERREDAKZIOA

Abendua heltzearekin batera, Laskorain ikastolak elkartasunezko Merkatu Txikia antolatzen du. Aurtengoan, *Eutsi elkartasunari* lelopean egingo dute eta erakusketak eta salmenta Kultur Etxean izango da, abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra bitarte.

Laskorain ikastolatik azaldu dutenez, bi helburu lortu nahi dituzte; alde batetik, «gure ikastolako ikasle ohi baten proposamenari erantzunez, Indiako Ipar-mendebaldeko Gujarat estatuko tribuen bizi kalitatea hobetzeko asmotan, 2000 urtean Subir herrian hasiz proiektuari bultzada eman nahi diogu». Horretarako ikasle ohien eta Ibarratik misio taldearen laguntza izango dute.

Bestetik, arazo psikiko eta fisikoak dituzten Saharako haurrentzako Auserd-en dagoen eskolari,

behar duten material pedagogikoa eskura dezaten laguntza eman nahi diete. Horretarako Tolosalde Sahararekin elkartearen laguntza izango dute.

Baina merkatua antolatu ahal izateko, aurretik ere lana egin behar dute bertan salduko duten materiala biltzen.

Bilduko duten materiala

Urtero bezala, jostailuak, jantzi erabilgarriak, liburuak, puzzleak, koadroak, brikolajerako tresnak... onartuko dituzte, beti ere baldintza egokitan baldin badaude...

Halaber, etxeko altzariak armarioak, sofak kendu nahi dituenarentzat, Emaus-ko trapeoak jasoko dizkie, antolatzaileek azaldu dutenez. Horretarako, 943459874

telefono zebakia ireki dute beraiekin harremanetan jartzeko.

Bilketa egiteko modua

Datorren astean zehar, Tolosako dendetatik pasako dira ere laguntzeko zerbit baduten jakiteko.

Horretaz gain, materiala eman nahi dutenek, Plaza Zaharreko Erretengibel lokalean utzi daiteke abenduaren 15etik 19ra, 18:00etatik 19:00etara. Halaber, Laskorain ikastolako bulegora eraman daiteke edota telefonoz deituz gero jasotzera pasako dira 943697122/27.

Merkatu Txikia zabaltzen dutenean zuzenean Kultur Etxera bertara eraman ahal da materiala. Diruz lagundu nahi izanez gero, berriz, kontu korrontea hau da: 21010081190004212098.

943 671 427

5 ALBI ALTZARIAK

LOGELA
ESKAINITZA BEREZIA

Garzia Goldaraz, 1 • HERNANI • Tel.: 943 557 154 • Faxa: 943 552 082 • mueblesalbi@euskalnet.net

Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzak 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburuaren inguruan antolatutako ekitaldi hauetara gonbidatzen zaituzte.

AZAROAK 28, OSTIRALA

Garraxi Ixila antzezlan (Lasarteko Landaberri antzerki eskola). Xabier Lasaren Oroimenean *Lokartutako Ahotsa* liburuaren oinarritutako obra.
Ordua: 22:00
Lekua: Leidor Zinema

ABENDUAK 1, ASTELEHENA

1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldea eta Leitzaaldean liburuaren aurkezpena, Mikel Errazkin Agirrezabala eta Joxemi Saizar Arostegiren eskutik. Ondoren lunch-a guztientzat.
Ordua: 20:00
Lekua: Tolosako Zerkausia

ABENDUAK 2, ASTEARTEA

Gerra Zibila Tolosaldean hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkarte Mikel Errazkin Agirrezabala eta Jantxo Agirre Mauleonen eskutik.
Ordua: 20:00
Lekua: Tolosako Udaleko Pleno Aretoa

1936KO GERRAKO OROITZAPENAK
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN



Oharra: Ekitaldi guzti hauetan 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburu eskuratzeko aukera izango da.



Hainbat lagunek sinatu zuten atzo manifestua. I. GARCIA

'Gizonduz' manifestua sinatzen aritu dira herriko gizonaek

Anoeta » Indarkeria sexistaren aurka egindako ekitaldien baitan egin zuten sinadura bilketa atzo arratsaldean.

IMANOL GARCIA

Indarkeria sexistaren aurkako ekitaldien baitan, atzo arratsaldean *Gizonduz* manifestuaren sinaketa bilketa egin zuten Anoetan. Heldu zein gazteak joan ziren udaletxe aurrean jarritako mahaira beraien sinadura ematera.

Izan ere, indarkeria sexistaren aurkako ekitaldien berri ematen zuten kartelean, *Gizonduz* manifestuarekin bat egiten zuten hainbat gizonen aurpegiak azaltzen ziren, nolabait sinatzera animatuz. Hainbat esparruetakoak zeuden

kartelean: Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria, Ander Llorente gazteria ordezkatzuz, Antolin Sanz adinekoak ordezkatzuz, Asier Mendizabal Ikastolako lehendakaria, Dani Maiza Ikastolako zuzendaria, Iñaki Albiztur herriko parrokoa, Jon Ander Odriozola dendaria eta Joseba Agirrezabala zinegotzia.

Sinadura biletaren aurretik kale animazioa izan zen indarkeria sexistaren aurka eta sinatzera animatzeko. Joseba Agirrezabala zinegotziak *Gizonduz* manifestuaren irakurketa egin zuen ere.

Bestalde, indarkeria sexistaren aurkako leloa jartzearen lehiaketan Amaia Urkola izan da irabazlea, *Berdinastunaren alde, gizarte hobeari alde* leloarekin. Lelo horixe azalduko da Udalak zabalduko duen patrikako egutegietan.

Lakunzak bigarrenaren aurka du partida gaur

ERREDAKZIOA

Areto futboleko Transportes Lakunza talde billabonatarak garaipe berri bat lortu zuen UPV Alavaren aurka aurreko jardunaldian. Gaur jokatu du hurrengo partida, etxetik kanpo, 18:00etan, Galdakoko Lagun Onak taldearen

aurka. Bigarren sailkatua da eta garaipena lortzea garrantzitsua da.

Lakunzak 7-2 irabazi zion UPV Alavari, ikuslego dexente izan zuen norgehiagokan. Atsedendira 3-1 iritsi ziren eta bigarren zatian aurkariaren hutsak aprobetxatu zituzten lasaitasunez irabazteko.

Kamioi batek N-1ean Tolosan, artaziarena egin du eta gidaria hil egin da

ERREDAKZIOA

Atzo 15:30a aldera kamioi batek artaziarena egin zuen N-1ean eta txoferra hil egin zen. Donostiako norabidean gertatu zen ezbeharrak, eta auto ilara handiak sortu ziren. Ertzaintzak ez zuen irauli izanaren arrazoien berri.

Txoferra kamioiaren kabinan gelditu zen atera ezinik. Anbulantzia eta suhiltzaileak hurbildu ziren; eurek baieztatu zuten txoferraren heriotza. Trafikoa Tolosako barnealdetik bideratzen aritu ziren ordu eta erdi inguruz eta A-15 errepidean hartzea ere gomendatu zuten; 5 kilometroko ilara sortu zuen une batzuetan Donostiara noranzkoan. Kamioia alboratzea lortu zuten eta trafikoa berriz normaltasunera bueltatu zuten.

Laburrak

Miguel Zalakain omenduko dute bihar goizean

VILLABONA » Bihar, Miguel Zalakain billabonatarra omenduko dute Belabietan, 11:30ean. Oinez joateko asmoa dutenak 09:30ean Olaederran elkartuko dira. Txalaparta, trikiritxa eta hamaiketako antolatutuzte Zalakain eraila gogoan izanik (duela 18 urte gertatu zen ezbeharrak). Bazkaria Uxo-toki elkartearen egingo dute ondoren.

Zineman 'La buena nueva' eta 'Atrapado en un pirado'

VILLABONA » Gaur, Gurea aretoan 17:00etan zinema izango da: *Atrapado en un pirado*, hain zuzen. 19:30ean eta 22:30ean, berriz, *La buena nueva* jarriko dute. Bihar 17:00etan berrituko *Atrapado en un pirado* ikusteko aukera izango da, eta 19:30ean *La buena nueva*. Etxe iluntzean, ikuslearen eguna izanik, (21:30) *La buena nueva* jarriko dute.

Mendi asteak Asteasun eta Villabonan

AISIA » Gaur Asteasun, Sagainen Mendi Astearen baitan, 11:00etan IV. Orientazio Lasterketa izango da, adin guztiei zuzendutakoa. 17:00etan berriz, Eskalada Txapelketa antolatuko dute. Bihar 09:00etan mendi ibilaldirako plazatik aterako dira eta gero Sanamain bazkaria egingo dute. Villabonan, Aizkardiren Mendi Astearen ere mendi ibilaldia dago bihar eta 08:30ean Olaederra kiroldegitik abiatuko dira. Gero bazkaria izango da.



Gustura jan eta eskuekin lan

LARRAUL » Atzo ekin zioten Larraulgo Kultur Asteari eta lehenengo ekitaldia haurrei zuzendutako merienda eta eskulanak izan ziren. Gaurkorako egitarau oparoa dago: 12:00etan, Larraulgo eskolari buruzko berriak; 14:00etan, bertso bazkaria, Joxe Agirre eta Amets Arzallusekin; 16:30etik 18:00era, Larraulgo baserrien argazki zaharrekiko erakusketa museoan; 18:00etan, Pello Añorga ipuin kontalaria eta 19:00etan poteo herriko trikitalariekin. I. GARCIA



Historia liburuaren aurkezpena

ANOETA » Herriko historiari buruzko bigarren liburua argitaratu dute Anoetako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak, *Anoetako herri-sinesmenak historian zehar* izenekoa. Aurkezpena atzo egin zuten parrokan eta bertan izan ziren Periko Peñagarikano Anoetako alkatea eta Juanxo Agirre-Mauleon, Anai Isabel Rodriguez eta Mikel Errazkin egileetako hiru. I. GARCIA



Argazki Lehiaketaren irabazleak

ANOETA » Herriko 2009ko egutegia osatzeko egindako argazki lehiaketaren irabazleak jakinarazi ditu Anoetako Udalak. Eneritz Urkola, Egoitz Luiza, Eneko Perez, Nuria Castaño (hiru argazki), Maialen San Sebastian eta Juan Carlos Otero izan dira sarituak eta Alberto Zubillagak accessita jaso zuen. Lehiaketara aurkeztutako argazkiak ikusgai daude kiroldegian abenduaren 5era arte. I. GARCIA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LABek dio «eredu ekonomiko, sozial eta politikoaren aldaketa ezinbestekoa» dela

Ekonomia » Kriariaren aitzakian enpresek lan baldintzak murriztu nahi dituztela esan du LABek Zaldibiako batzarrean.

ASIER IMAZ

Tolosaldeko eta Goierriko Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) batzarra egin zuen herenegun Zaldibian. Bertan bi eskualdeetako 100 ordezkari baino gehiago bildu ziren *Euren krisia, euren kontura* goiburupean.

LABek plazaratutako irakurketan ondorengo gaiak aztertzen dituzte: langileen egoera; erantzule politiko eta ekonomikoak eta egoera aldatzeko aukera.



Tolosaldeko eta Goierriko LAB sindikatuko ordezkariak Zaldibian herenegun burututako batzarrean. ARKAITZ APALATEGI

«Aspalditik gaude krisian»

Krisi kapitalista ahoz aho dabilen honetan, LABek dio «oso aspalditik gaudela langileok krisi larrian. Hazkunde ekonomikoaren garaietan ere halaxe egon baikara: langileok gure soldatak pisua nola galtzen duten ikusi dugu, kontratuak gero eta miserableagoak dire-

la eta gure lanpostuak gero eta eze-gonkorrago eta prekarioago bihurtzen direla».

Kapitalismoaren krisia lan baldintzak murrizteko sortu dutela aipatu du sindikatu abertzaleak: «Krisia gainditzea denon esku da: goela diote, langileok gerrikoa estutu behar omen dugu, baina langi-

leok aspalditik dugu gerrikoa estuturik. Euren etekinak berdinduz langileen eskubide eta lan baldintzak murrizteko baliatu nahi dute euren sorturiko krisia: kaleratzeen bidez, soldaten izozte eta murrizpenekin, laneko esplotazioa igoz eta izaera sozialeko gastu publikoa murriztuz».

«Arazo nagusia: ondasunen banaketa»

LAB sindikatuak, batzarrean osteko irakurketan, krisian erantzule politikoak ere badirela salatu du: «beren politika monetario, sozial-laboral eta fiskalen bitartez egoera honetara bultzatu gaituzte. Gobernuak kapitala gero eta esku gutxia-

gotan metatzeko prozesualehene-tsi dute, hori egitean desoreka nabaria sortuz ondasunen banaketan». Frantziako presidentek, Nicolas Sarkozyk, ospetsu bilakatu duen ekimenaz ere hitz egin du LABek: «Kapitalismoa birsortzeko beharraz hitz egitea metaketa kapitalistaren oinarriak aldatu gabe, zerbait egiten dela sinestazteko baliabide propagandista hutsa da. Benetan egiten dena ez-kutatzen digute: politika publiko- en eskutik galerak gizarteratzea eta etekinak pribatizatzea».

«Hau guztia ez da aldaezina»

Errealitate honen aurka borroka egiteko deia egin du LABek, «hau guztia ez da aldaezina» aipatuz: «Langileok, pentsiodunak, langabezian daudenak, gazteak... honen kontra borroka egin dezakegu. Honen kontra borrokatu ahal eta behar dugu, lau lotsagabe zantar gure kontura nola aberasten diren ikusteaz nazkatuta eta nekatuta gaudelako». Borroka horretarako, «aberastasun hori modu justu batean banatzeko», ekonomia per-tonen mesederako planifikatu behar dela azaldu du LABek, «eta ez alderantziz». Azkenik, hau burutu ahal izateko, «Euskal Herrian eredu ekonomiko, sozial eta politiko hori erabakitzeko eskubidearen jabe ere izatea ezinbesteko dugu».



Tolosa Gourmet abenduaren 5ean

TOLOSA » Herriak sukaldaritzaren tradizioan izan duen protagonismoa aitortzeko helburuarekin, Tolosa Gourmet ekimenak, Tolosako Txuletoiaren Festa ospatuko du abenduaren 5etik 8ra, Euskadiko lau txuleta erretegi ospetsuenen eskutik. Zerkausan, azoka lekuan, 1.000 lagunentzako jantetxea jarriko dute. HITZA



Villabona eta Ibarra aldarrikapenak

IBARRA » Hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzeak egin ziren atzo bi eskualdeetako hainbat herritan. Ibarra, *Udaletxe honek dispersioa bultzatzen du* lelopean giza katea egin zuten. Antolatzaileen esanetan,

«Udalak preso senide eta lagunek euren bidaia luze- zetarako jasotzen zituzten diru laguntzak bertan behar utzi zituen ezkutuan». Villabonatan Miguel Zalakainen omenezko manifestazioa izan zen. A. IMAZ

Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

M^{re} KARMEN MAKAZAGA ARRUABARRENA

Andrea

-Goian bego-

Hamaika kanpaikada gure bihotzetan

Ilobak



ZARAUTZ
2008ko azaroaren 29a

JABIER ARANO AMAS

Muxu handi bat eta gero arte



Ikastolako zure lagunak

ZUMAI
2008ko azaroaren 29a



9°
5°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 7°
HOTZENA 4°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Erakusketak

- **Anoeta.** Egutegirako argazki lehiaketako lanen erakusketa Abraham Olano kiroldogean.
- **Tolosa.** Txotxongoien jaialdiko erakusketa, *Errusiarako leihoa* ikusgai Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Ainhoa Arregi, Amaia Aramendi eta Arrate Iturbe artistek *Iparretik Hegora buruz behera* argazki erakusketa jarri dute Itaie tabernan, Peru, Argentina eta Mozambiquen ateratako irudiekin.

Deialdiak

- **Tolosa.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren 13an, BECen antolatu duen ekitaldira autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoitzan 11 eurotan (bazkideek, 8 euro).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
- **Leitza.** Larraia, M.I.Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Kulturaniztasuna bultzatuz

TOLOSA ■ Bilboko Vuelta Bonita Corporationek *Babel Mundua* aurkeztuko zuen atzo Leidorren, Euskararen Egunaren harira Ereite elkarteak antolatutako jardueren baitan. Lan honek kulturaniztasuna bultzatu nahi zuen, eta jende ugari hurbildu zen hau ezagutzera. Mundu berezia ikus ziteke-

en bertan. Pandora izeneko neskatila izan zen atzoko antzezlaneko protagonista nagusia. Pandora uharte batean bizi da bere laguna den saia batekin. Uharteko jabea Jenny buruzagi anderea da eta ez die bertatik ateratzen uzten. HITZA

Foto Depilazioa

Bukatu da behingoz hilearen arazoa

Hau da zure Depilotal zentroa:

Shuyana
C/ Eskolapioetako Lore nº3, 1ª
20.400 Tolosa - Gipuzkoa
Tel. 943 67 54 89

Más información en www.depilotal.com o 900 885 000

Harka osoak + itarrendia
250€
Lanendabizko sesioa

5 sesioeko bonoa
1.250€

Fotodepilación
Foto-Pilajarekin
Foto-epilación
Foto-epilación
Foto-epilación

Tolosa GOURMET

Abendua 5, 6, 7, 8

Txuleta
Festa

Tolosa GOURMET

goya. cámaras

EUSKADI

K

www.tolosagourmet.com

www.tolosagourmet.com